



UNITATE SUSTATZAILEA	EUSKARA ETA HEZKUNTZA
XEDEA	TOLOSARI EDO TOLOSALDEARI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANAK (GRAL), MASTER AMAIERAKO LANAK (MAL) ETA GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO PROIEKTUAK EGITEKO BEKEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIAREN ONARTZEA

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udalean hezkuntza-arloaren eskumena duen zinegotzi delegatu Aitor Aguirresarobe Murguiren, bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Geroztik, bi aldaketa izan ditu: bat, GAO, 68. zk., 2023-01-26an, eta bestea, GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan sartua dagoela honako dirulaguntza-lerro hau: Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko bekak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 7an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 9.200 euroko zenbatekoa aurreikusi dela, 2027ko udal-aurrekontuaren 0900.481.02.320.00 partidaren kontura, betiere partida horretan kreditu nahikoa baldin badago.

LAUGARRENA.- Hezkuntza-arloko eskumena duen zinegotzi delegatuak, 2026ko uztailaren 14an emandako probidentzian, agindu zuela espedientea hasteko Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko beken oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko.

BOSGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak proposamen teknikoa egin duela, oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera emateko.



SEIGARRENA.- Dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzailetzak eta Idazkaritzak) beren txostenak igorri dituztela, honako ondorio hauekin:

Egileak	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra
Berdintasuna	ALDEKOA	
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	ALDEKOA	
Kontu-hartzailetza	ALDEKOA	

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan dituela Euskara eta Hezkuntza Sailak, eta dagozkion zuzenketak egin dituela.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotako udalerriko eskumen propioen artean hau dagoela: «36. *Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea*».

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak (aurrerantzean, DLO), hau ezartzen duela 9.2 artikuluan: «*Dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera*».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio-egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- DLOren 22.1 artikulua arabera, «*dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Lege honen ondorioetarako, norgehiagokatzat hartuko da aurkeztutako eskabideak alderatuz dirulaguntzak emateko prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian aldeztu aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuta baloraziorik*



handiena lortu dutenak esleitzeko, erabilgarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin».

Salbuespen gisa, eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten baldin bada, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du dirulaguntzei bideratutako gehienezko kopuru osoa.

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLOaren 17.3 artikuluan adierazten dela zeintzuk diren dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak. Atal horietaz gain, DOOaren 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedientean jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza-lerro hau honako arrazoi hauengatik jotzen dela interesekotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	Xedea da Tolosako ikasleei bekak ematea, Tolosari edo Tolosaldeari buruzko lanak egin ditzaten beren ikasketa-ibilbidearen amaieran, izan unibertsitateko graduatan, masterretan edo goi-mailako lanbide heziketan.
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Espero da Tolosari edo Tolosaldeari buruzko era horretako lan gehiago egitea.
Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa:	Helburu hezitzailea dute bekek, eta, horrez gain, udalerrirako eta eskualderako jakintza sortzea eta zabaltzea, askotariko arloetan.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikulua dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa dela. Zehazki, honako hau jasotzen du: *«Oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe».*

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian xedatzen denari kalterik egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrarekin bat etorrita ematen



diren dirulaguntzak bateragarri izango direla helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gaintitu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da, eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela.

Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar dutela ezinbestez, eta deialdiak, berriz, DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea.

Halaber, 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskumen hori arloko zinegotzi delegatuari eskuordetua zaio.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko beken oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:



TOLOSAKO
UDALA

2026DO100017

TOLOSAKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE TOLOSA
Oinarri arautzaileak Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko bekatarako	Bases reguladoras de las becas para la realización de Trabajos Fin de Grado (TFG), Trabajos Fin de Máster (TFM) y Proyectos de Formación Profesional de Grado Superior sobre Tolosa o Tolosaldea
1. Beken xedearen definizioa	1. Definición del objeto de las becas
Oinarri hauen xedea da arautzea Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko bekak, lehia bidezko konkurrentzian ematen direnak, helburu dutenak Tolosari eta Tolosaldeari buruzko lanak egitea sustatzea.	Es objeto de las presentes bases regular las becas para realizar Trabajos de Fin de Grado (TFG), Trabajos de Fin de Máster (TFM) y Proyectos de Formación Profesional de Grado Superior, en concurrencia competitiva, que tienen por objeto promover la realización de trabajos sobre Tolosa y Tolosaldea.
2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea	2. Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones
Beka hauek sartua daude Tolosako Udalaren 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2025eko azaroaren 27an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).	Estas becas están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 27 de noviembre de 2025 (BOG, nº7, 13-01-2026).
3. Pertsona onuradunak	3. Personas beneficiarias
Pertsona onuradun (aurrerantzean, onuradun) izan ahalko dira pertsona fisikoak, oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.	Podrán obtener la condición de persona beneficiaria (de aquí en adelante beneficiaria) las personas físicas que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases y en la correspondiente convocatoria.
4. Pertsona onuradunek bete beharreko baldintzak	4. Requisitos que deben reunir las personas beneficiarias
Hona hemen pertsona onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:	Los requisitos generales que cumplir por las personas beneficiarias son las siguientes:
1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte	1. Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones

ESKucc6d40b7-cf0e-4825-a18d-46adcb7535b8



Segurantzarekikoak beteta izatea.	tributarias y de Seguridad Social.
2. Betearazte-aldian ez izatea Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.	2. No mantener deudas o sanciones tributarias en periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Tolosa, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.
3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.	3. No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
4. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.	4. No estar incurso/a en sanción administrativa, laboral o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción, o no estar incurso/a en ninguna prohibición establecida en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en cualquier otra causa estipulada en las normativas aplicables.
Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:	Los requisitos específicos que cumplir por las beneficiarias son los siguientes:
1. Tolosan erroldatuta egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.	1. Estar empadronada en Tolosa a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.
2. 18 eta 30 urte bitartean izatea, urte naturalak oinarri hartuta.	2. Tener entre 18 y 30 años, según los años naturales.
3. Urte natural horretan matrikulatuta egotea Gradu Amaierako Laneko, Master Amaierako Laneko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako	3. Estar matriculada en el año natural en la asignatura de Trabajo Fin de Grado, Trabajo Fin de Máster o Proyecto de Formación



proiektuko ikasgaiak.	Profesional de Grado Superior.
4. Lana euskaraz idaztea.	4. Redactar el trabajo en euskera.
5. Lana Tolosari edo Tolosaldeari buruzkoa izatea. Eskualdeari buruzko lanen kasuan, eskualdea hartu beharko da aztergai, eta ez eskualdeko udalerrri bakar bat.	5. Que el trabajo trate sobre Tolosa o Tolosaldea. En el caso de los trabajos sobre la comarca, deberá abarcar la comarca, y no un municipio concreto de la comarca.
6. Lanak gutxienez 10etik 7ko kalifikazioa edukitzea.	6. Que el trabajo haya obtenido una calificación mínima de 7 sobre 10.
5. Emateko prozedura	5. Procedimiento de concesión
1. Lehia bidezko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.	1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.
2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuta.	2. El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en la Base Nacional de Subvenciones (BDNS), así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG).
3. Prozedura honen bidez, bekak emateko, oinarri hauetako 10. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak.	3. Mediante este procedimiento, la concesión de becas se realiza evaluando las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios establecidos en el art. 10 de las presentes bases.
6. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua	6. Forma y lugar de presentación de solicitudes
1. Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS). Era berean, laburpen bat argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).	1. Las presentes bases y la convocatoria serán publicadas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS). Asimismo, se publicará un extracto el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG).
2. Eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren	2. Las solicitudes, junto con el resto de la documentación, podrán



Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte (https://udala.tolosa.eus/es), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez ditzakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorrita (UDATE, Plaza Zaharra 6B), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.	presentarse a través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Tolosa (https://udala.tolosa.eus/es), accediendo al portal de trámites y después a la línea de subvención correspondiente (o de forma presencial en la Oficina de Atención a la Ciudadanía – UDATE (Plaza Zaharra 6B), así como por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
7. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	7. Documentación a acompañar a la solicitud
1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, bekari dagokion atalean sartuta eskura daiteke: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU071128582	1. Impreso de solicitud normalizado facilitado por el Ayuntamiento, accediendo a la Sede Electrónica y después al apartado correspondiente a la beca: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA071128582
Eskaera-orrian, erantzukizunpeko adierazpena egin behar da, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.	En el impreso de solicitud, hay que realizar una declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la normativa aplicable.
2. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio, eta ordezkartza hori egiaztatzen duen dokumentazioa.	2. Documento de representación, en su caso, y la documentación que acredite la misma.
3. Lanari buruzko azalpena, honako alderdi hauei dagokiena:	3. Explicación del trabajo, en relación con los siguientes aspectos:
a) Lanaren izena eta laburpena.	a) Título y resumen del trabajo.
b) Tolosarekin edo	b) Vinculación e interés con



Tolosaldearekin duen lotura eta interesa.	Tolosa o Tolosaldea.
c) Lanaren berrikuntza eta aplikagarritasuna.	c) Innovación y aplicabilidad del trabajo.
d) Lanean genero-ikuspegia txertatzeko eredua.	d) Modelo de incorporación de la perspectiva de género en el trabajo.
4. Lanaren kopia bat.	4. Una copia del trabajo.
5. Kalifikazioaren ziurtagiria.	5. Certificado de la calificación.
6. Eskatzailearen curriculum vitae.	6. Currículum vitae de la persona solicitante.
Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:	En caso de oposición a la consulta de documentos:
1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	1. Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social.
2. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.	2. Certificado de la titularidad de la cuenta corriente.
8. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztatgarria	8. Documentación interoperable y verificable
Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.	La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que ya se encuentren en poder del Ayuntamiento de Tolosa.
Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23.3	A estos efectos, la persona o entidad interesada deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, siempre y que no hayan transcurrido más de 5 años desde la finalización el procedimiento al que correspondan, de acuerdo al artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre,



artikuluaren arabera, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.	General de Subvenciones, debiendo ser recabados por el órgano instructor, salvo que conste en el procedimiento la oposición expresa de la persona/entidad o la ley especial aplicable requiera su consentimiento expreso.
Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazioak eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez.	A su vez, se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración. De tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE.
Pertsona eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.	Las personas solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación.
Illo horretan, beka hauetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:	En este sentido, los requisitos que se verificarán para esta línea de becas a través de las plataformas corporativas, de intermediación NISAE o acceso público serán los siguientes:
1. Identitate-datuak kontsultatzea Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari.	1. Consulta de datos de identidad a la Dirección General de Policía.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	2. Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social.
3. IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.	3. Certificado de inhabilitaciones para obtener subvenciones y ayudas de BDNS al IGAE.
4. Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	4. Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa.
5. Kontu korrontearen	5. Certificado de la titularidad de la



titulartasunaren ziurtagiria.	cuenta corriente.
Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona eskatzaileari aurkez ditzala.	Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente a la persona solicitante su aportación.
Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.	En última instancia, el órgano competente responsable de instruir y resolver el procedimiento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.
Tolosako Udalak datu pertsonalen tratamendua legitimatuta geratzen da interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzean edo Udalar berari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan.	El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de Tolosa queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento en los términos previstos en el artículo 6.1. e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.
9. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria	9. Subsanación de errores y documentación complementaria
Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.	Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.
10. Balorazio-irizpideak eta	10. Criterios de valoración y



puntuazioak	puntuaciones
Proiektuek, gehienez, 100 puntu eskuratu ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera:	Los proyectos serán valorados hasta un total de 100 puntos, conforme a los siguientes criterios:
a) Lanak jasotako kalifikazioa: gehienez 70 puntu.	a) Calificación obtenida por el trabajo: hasta 70 puntos.
b) Udalerriarekiko edo eskualdearekiko lotura eta interesa: gehienez 10 puntu.	b) Vinculación e interés para el municipio o la comarca: hasta 10 puntos.
c) Berrikuntza eta aplikagarritasuna: gehienez 10 puntu.	c) Innovación y aplicabilidad: hasta 10 puntos.
d) Genero-ikuspegia txertatuta egotea: 10 puntu. Irizpide hori ezartzen da bat etorrita 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 23.3.b) artikuluan ezarritakoarekin.	d) Incorporación de la perspectiva de género: 10 puntos. Este criterio se establece de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23.3.b) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y para una vida libre de violencia machista contra las mujeres.
Proiektuek, beka eskuratu ahal izateko, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dituzte.	Para tener acceso a la beca, los proyectos deberán tener una valoración mínima de 50 puntos.
11. Beken zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak	11. Criterios para determinar la cuantía individualizada de las becas
Irizpide hauekin egingo da balorazioa:	La valoración se realizará con los siguientes criterios:
a) Lanak jasotako kalifikazioa. Tarte hauen arabera emango dira puntuak: • 9,0tik gorako kalifikazioa: 70 puntu. • 8,0-8,9ko kalifikazioa: 55 puntu. • 7,0-7,9ko kalifikazioa: 45	a) Calificación obtenida por el trabajo. Los puntos se otorgarán en función de los siguientes tramos: • Calificación superior a 9,0: 70 puntos. • Calificación entre 8,0 y 8,9: 55 puntos. • Calificación entre 7,0 y 7,9: 45



puntu.	puntos.
b) Udalerririkiko edo eskualdearekiko lotura eta interesa. Aztertuko da proposamenak zer neurritan duen lotura Tolosaren edo Tolosaldearen egoerarekin eta erronkekin. • Lotura zuzena du Tolosaren edo Tolosaldearen egoerarekin, ezagutzen ditu tokiko testuingurua eta eragileak, eta herrian ekarpena egin dezake: 10 puntu. • Badu nolabaiteko lotura, eta izan dezake inpaktua, baina ez erabatekoa: 5 puntu. • Lotura ahula edo orokorra du, ez propio Tolosarekin edo Tolosaldearekin lotua. Ez du berriazko ekarpenik herrian: 0 puntu.	b) Vinculación e interés con el municipio o la comarca. Se analizará en qué medida la propuesta está relacionada con la situación y los retos de Tolosa o Tolosaldea. • Tiene una relación directa con la situación de Tolosa o Tolosaldea, conoce el contexto local y sus agentes, y puede aportar valor al municipio: 10 puntos. • Tiene cierta vinculación y puede tener impacto, pero no de forma plena: 5 puntos. • Tiene una vinculación débil o general, no específicamente relacionada con Tolosa o Tolosaldea. No realiza una aportación específica al municipio: 0 puntos.
c) Berrikuntza eta aplikagarritasuna. Aztertuko da proposamenak zer berritasun-maila dakarren, eta gauzatzeko zimendurik badaukan. • Ikuspegi berritzailea dakar, diziplinartekoa, eta emaitzak erabilgarriak izan daitezke udal-politiketan edo komunitatean: 10 puntu. • Ikuspegia bada berritzailea, baina zalantzaraino da emaitzak zenbateraino izan daitezkeen erabilgarri: 5 puntu. • Ikuspegi berritzaile ahula dauka proposamenak, eta ez	c) Innovación y aplicabilidad. Se analizará el grado de novedad que aporta la propuesta y si cuenta con bases para su implementación. • Aporta un enfoque innovador e interdisciplinar, y los resultados pueden ser útiles en políticas municipales o en la comunidad: 10 puntos. • El enfoque es innovador, pero es incierto en qué medida los resultados pueden ser aplicables: 5 puntos • El enfoque innovador es débil, y la propuesta no



du oinarriko emaitza erabilgarriak lortzeko: 0 puntu.	tiene base para obtener resultados aplicables: 0 puntos.
d) Genero-ikuspegia. Aztertuko da zein neurritan dagoen ikuspegia txertatua proposamenean. • Genero-ikuspegia txertatua dago modu eraginkorrean: 10 puntu. • Genero-ikuspegiarekin lotutako helburu eta neurri zehatzak jaso dira: 7 puntu. • Genero-ikuspegiaren aipamen zehatzak jasota daude: 3 puntu. • Ez dago genero-ikuspegiaren aipamenik, edo oso orokorrak dira: 0 puntu.	d) Perspectiva de género. Se analizará en qué medida está incorporada en la propuesta. • La perspectiva de género está incorporada de manera efectiva: 10 puntos. • Se recogen objetivos y medidas concretas relacionadas con la perspectiva de género: 7 puntos. • Se incluyen menciones específicas a la perspectiva de género: 3 puntos. • No hay menciones a la perspectiva de género o son muy generales: 0 puntos.
Gradu eta master amaierako lanetan, 1.000 euro emango dira beka bakoitzeko, eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuetan, 300 euro beka bakoitzeko. Deialdirako zer kreditu dagoen erabilgarri, horren arabera izango da beka-kopurua. Puntuaziorik altuena lortu duten proposamenei emango zaie beka.	En los trabajos de fin de grado y de máster se concederán 1.000 euros por cada beca, y en los proyectos de Formación Profesional de Grado Superior, 300 euros por cada beca. El número de becas dependerá del crédito disponible para la convocatoria. Las becas se otorgarán a las propuestas que obtengan la puntuación más alta.
Berdinketarik gertatuz gero, kalifikaziorik handieneko lanari emango zaio beka.	En caso de empate, se concederá la beca al trabajo con la calificación más alta.
12. Pertsona onuradunen betebeharrak eta konpromisoak	12. Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias
1. Tolosako Udalak finkatutako egunean, lana jendaurrean aurkeztea.	1. Presentar el trabajo públicamente en la fecha fijada por el Ayuntamiento de Tolosa.
2. Lanaren argitalpenik eginez gero, adieraztea Tolosako Udalaren	2. En caso de publicar el trabajo, indicar que ha recibido financiación



finantzaketa jaso duela.	del Ayuntamiento de Tolosa.
3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko irizpide hauek betetzea: • Hizkera ez-sexista erabiltzea. Ezin izango da erabili irudi diskriminatzaileak edo genero-estereotipoak indartzen dituenik, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatu beharko da. • Ikerketan datu-bilketarik eginez gero, horiek sexuaren arabera jasotzea, non eta ez dagoen hori ez egiteko salbuespen-egoerarik.	3. Cumplir los siguientes criterios para fomentar la igualdad entre mujeres y hombres: • Utilizar un lenguaje no sexista. No se podrán emplear imágenes discriminatorias ni estereotipos de género, y deberá promoverse una imagen basada en los valores de igualdad, diversidad e inclusión. • En caso de realizar recogida de datos en la investigación, estos deberán desagregarse por sexo, salvo que exista una situación excepcional que lo justifique.
4. Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein betebeharrak.	4. En general, cualquier otra obligación recogida en la normativa reguladora de subvenciones.
13. Bekak ordaintzea	13. Abono de las becas
Bekak zati bakarrean ordainduko dira, behin betiko ebazpena eman, eta lana jendaurrean aurkeztu eta gero.	Las becas se abonarán en un único pago, una vez dictada la resolución definitiva y tras la presentación pública del trabajo.
14. Beken xedea justifikatzea	14. Justificación del objeto de las becas
Onuradunak justifikatu beharko du egin duela beka jaso duen jarduerak. Horretarako, eskaera egitean, lanaren ale bat aurkeztu beharko du, eta kalifikazioaren ziurtagiria.	La beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad para la que ha recibido la beca. A tal efecto, al presentar la solicitud deberá aportar un ejemplar del trabajo y el certificado de la calificación.
15. Itzulketen araubidea	15. Régimen de reintegro
Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli behar duela, zenbateko hori itzuli egin beharko da, dagokion	En caso de que el órgano competente acuerde la obligación del beneficiario de reintegrar total o parcialmente el importe percibido, dicho importe deberá



berandutze-interesa gehituta.	devolverse incrementado con el interés de demora correspondiente.
Horri dagokionez, Tolosako Udalaren Dirulaguntza Orokorraren VI. kapituluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan, haren Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoa aplikatuko da.	A este respecto, será de aplicación lo dispuesto en el capítulo VI de la Ordenanza General de Subvenciones, el título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, su Reglamento (Real Decreto 887/2006, de 21 de julio), y demás normativa vigente.
16. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea	16. Régimen de infracciones y sanciones
Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.	Sera de aplicación lo establecido en el capítulo VIII de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, así como lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable.
17. Aplikatu beharreko araudia	17. Normativa aplicable
Oinarri hauetan araututako bekak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:	Las becas reguladas en las presentes bases se ajustarán a lo establecido en las siguientes disposiciones normativas:
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.	- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.	- Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.	- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres



- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.	- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.	- Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.	- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.
- 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.	- Plan Estratégico de Subvenciones, 2025-2028.

BIGARRENA.- Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko beken deialdia onartzea, honako eduki honekin:

I. ERANSKINA: Deialdia	ANEXO I: Convocatoria
1. Xedea	1. Objeto
Deialdi honen xedea da beka hauen berri ematea: Tolosari edo Tolosaldeari buruzko Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako lanak edo Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak egiteko bekak, lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen direnak.	El objeto de esta convocatoria es dar a conocer las becas para la realización de Trabajos de Fin de Grado, Trabajos de Fin de Máster o proyectos de Formación Profesional de Grado Superior relacionados con Tolosa o Tolosaldea, concedidas en régimen de concurrencia competitiva.
2. Bekak egozten zaizkien kreditua eta aurrekontu-partida	2. Crédito y partida presupuestaria a los que se imputan las becas
Deialdi honetan emateko beken zenbateko osoa 9.200,00 euro da, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura, betiere 2027ko udal-aurrekontuan horretarako kreditu nahikoa baldin badago: 0900.481.02.320.00 (2027).	La cuantía total de las becas a conceder en esta convocatoria será de 9.200,00 euros, con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa, siempre que exista crédito suficiente para ello en el presupuesto municipal de 2027:



	0900.481.02.320.00 (2027).
Zenbateko hori honela banatuko da: • Gradu eta master amaierako lanak: 8.000 euro (1.000 euroko 8 beka). • Goi Mailako Lanbide Heziketako proiektuak: 1.200 euro (300 euroko 4 beka).	Dicha cuantía se distribuirá de la siguiente manera: • Trabajos de Fin de Grado y Trabajos de Fin de Máster: 8.000 euros (8 becas de 1.000 euros cada una). • Proyectos de Formación Profesional de Grado Superior: 1.200 euros (4 becas de 300 euros cada una).
3. Pertsona onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua	3. Requisitos que deben reunir las personas beneficiarias y forma de acreditarlos
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 4 de las bases que se publican en esta convocatoria.
4. Eskaerak aurkezteko epea	4. Plazo de presentación
Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da 2027ko ekainaren 1etik 2027ko urriaren 10era.	El plazo de presentación de solicitudes estará abierto del 1 de junio de 2027 al 10 de octubre de 2027.
5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	5. Documentación que acompañar a la solicitud
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 7 de las bases que se publican en esta convocatoria.
6. Balorazio-irizpideak	6. Criterios de valoración
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 10 de las bases que se publican en esta convocatoria.
7. Proiektuak egikaritzeko epea	7. Plazo de ejecución de los proyectos
Bekaren xede diren jarduketak 2026ko irailaren 1etik 2027ko urriaren 10era bitartean egingo dira. Lanak edo proiektuak epe horretan aurkeztua beharko du izan.	Las actuaciones objeto de la beca se realizarán entre el 1 de septiembre de 2026 y el 10 de octubre de 2027. Los trabajos o proyectos deberán haberse presentado dentro de dicho plazo.



8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak	8. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento
Euskara eta Hezkuntza Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.	La instrucción del procedimiento será promovida por el Área de Euskara y Educación.
Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.	Corresponde a dicha área la valoración de las solicitudes mediante la emisión del correspondiente informe técnico.
Balorazioa egiteko, sailak adituen aholkularitza jaso ahal izango du.	Para realizar la valoración, el área podrá contar con el asesoramiento de personas expertas.
Bekak emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.	La propuesta de la concesión se elevará a la Comisión de Valoración para emitir su correspondiente informe.
Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean: - Kontu-hartzailea edo teknikaria. - Saileko teknikaria. - Saileko zinegotzia. - Idazkaritza Saileko AOT bat.	Dicha Comisión de Valoración estará compuesta por los/as siguientes integrantes, garantizándose una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su composición, salvo justificación en contrario: - El/La interventor/a o el técnico/a. - El/La técnico del área. - El/La concejal/a del área. - Un/a TAG del Área de Secretaría.
Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados en la forma que establezca la convocatoria, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación.
Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko	Posteriormente, para su resolución definitiva, se dará traslado a Alcaldía, sin



ebazpena eman dezan.	perjuicio de las delegaciones que pudiese efectuar.
9. Ebazteko eta argitaratzeko epea	9. Plazo de publicación y resolución
Behin betiko ebazpena emateko eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita	El plazo máximo para resolver y publicar la resolución definitiva es de seis meses, a contar desde la finalización del plazo para presentar las solicitudes.
10. Ebazpenaren argitalpena	10. Publicación de la resolución
Ebazpena, behin-behinekoa zein behin betikoa, Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da, jakinarazpen-ondorioetarako.	La resolución, tanto provisional como definitiva, será objeto de publicación en la página web municipal y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de notificación
11. Beka aldatzea	11. Modificación de la subvención
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 15 de las bases que se publican en esta convocatoria.
12. Helegiteen araubidea	12. Régimen de recursos
Ebazpen hau finkoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:	La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:
Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.	Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso	No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la



TOLOSAKO
UDALA

2026DO100017

eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.
Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

HIRUGARRENA.- Erabakia argitaratzea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (BDNS), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian.

Ebazpen hauek finkoak dira, eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu orde, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, udal-idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

Aitor Aguirresarobe Murgui

UDAL-IDAZKARI AKZIDENTALA

Miren Amaia Uribe Belloso



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026DO100017-Bekak dekretua/Bekak dekretua (TOLOSAKO UDALA)